

Nora eta bere familia

-Bergarako herrian familia bat bizi ziren Nora,Mireia,Malen,Elizabeth eta Roberto. Ez ziren familia normal bat superboteak zituztelako. Norak haizearen boterea zuen, Malenek suarena Mireiak euriarena Aita elastikoa zen eta Ama indartsua.

-Egun batean familia horrek gaizto bat suntsitu behar zuen, inobeze ez ezagutzeko traje batzuk jantzi behar zituzten eta antifaz batzuekin. Gauza asko egin behar izan zuten irabazteko baina irabazi egin zuten , irabazi eta gero etxera joan ziren eta lo egin zuten, esnatu eta eskolara joan ziren. Egunero gaizto bat suntsitu behar zuten orduan umeei ez zuten nahi super heroiak izan baina izan behar zuten esan zioten gurasoak eta umeak hasarretu egin ziren.

-Orduan gurasoak bakarrik suntsitzen zituzten gaiztoak eta danak galtzen zituzten. Orduan umeei eskatu zioten egitea danak galtzen zutelako baina umeak ezetz esan zioten orduan gurasoak ez ziren joaten eta Bergara osoa apurtu zen. Orain gurasoak eta umeak damututa zeuden baina ezin zuten atzera pausorik eman eta gainera dana galdu zuten.

Superheroiak kalera irten ziren azken aldiz eta esan zuten beste herri batera bizitzera zioazela eta bere benetako izenak esan zuten eta joan egin ziren baina jendea beraien etxera joan zen.

Gauza guztiak sartuta zeudela kajetan maletetan... dana sartuta dagoela ziurtatzeko dana begiratu zuten, gauza bakarra ez dutela sartu trajeak ziren eta nazka, beldurra eta gauza asko sentitzen zuten baina traje horiek ezin ziren apurtu apurtezinak ziren eta gainera oso politak ziren. Azkenean gorde egin zituzten eta ez zituzten ez apurtu ez ezebez.

Mila jarraitzaile zeuden etxe kanpoan kazetariak,jarraitzaileak eta Bergarako langileak zeuden kanpoan ez zutelako nahi superheroiak jutea baina pentsatuta zegoen eta ezin zen atzera pausorik eman.

Baina ezin zuten joaten utzi. Orduan, manifestazio batzuk egin zuten baina ez zuten lortu eta hori asko haserretu zieten eta hori baino gauza gehiago egin zuten.

Azkenean udala negoziatzen hasi zen superheroiekin baina superheroiak ez zuten nahi eta ezin zuten atzera pausorik eman eta udala asko negoziatu eta gero superheroiak pentsatzen hasi ziren eta asko pentsatu eta gero hor geratzea erabaki zuten eta prentsaurreko bat egitea erabaki zuten esan zuten ez tratatzeko desberdin normal tratatzeko.

Hortik aurrera Bergara osoa eraiki zen orduan Sauron agertu zen ez zekien superheroiak zeudela eta hor agertu ziren Rober Elizabeth Mireia Malen eta Nora kristoneko sorpresa eman zioten Sauronei eta halako sorpresa emanda irabazi egin zuten.

Umeak bizitza normal bat zuen eskolara jun lagunak... baina gurasoak ez hainbeste beti zeuden autografoak argazkiak superbotereak egitea baina ez zioten asko molestatzen .

Azkenean familia zoriontsu bat zen eskolan ondo lanean ondo eta lagunekin super ondo batzuetan autografoak baina azkenean familia normal bat zen.

Baina azkenean ikasi duguna ez da gauzak gaizki laga behar direla eta ez dela esperantza galdu behar berriro hartu arnasa eta dana ondo ipini behar dela.